



# Argitaratu diren azken IKI (Izurriteen Kudeaketa Integratua) gidak: laboreak eta hazidun fruta-arbolak 15/02/10

Izurriteen Kudeaketa Integralerako giden (IKI) xedea da orientabide izatea nekazari eta aholkularientzat, izurriteen kudeaketa integraleko hatsarreak ezartzeko, nazioko nekazaritza-ekoizpen osoan. Hain zuzen ere, horixe da euren jarduera Espainian gauzatzen duten nekazaritza-ustiategi guztiek bete beharreko betekizuna, irailaren 14ko 1311/2012 Errege Dekretua (<http://www.boe.es/boe/dias/2012/09/15/pdfs/BOE-A-2012-11605.pdf>)ren III. kapituluaren arabera.

Dekretu horren bidez ezartzen da produktu fitosanitarioak modu iraunkorren erabiltzeko esparrua. Produktu Fitosanitarioen Erabilera Iraunkorrerako Ekintzen Plan Nazionala 2012ko abenduan onetsi zen, Nekazaritzaren eta Landa Garapenaren Sektorearen Batzarrean, eta ordurako aurreikusten zen, 3.1 neurrian zehazki, izurriteen kudeaketa integralerako gidak egin behar zirela, Plana indarrean dagoen bitartean.

Duela gutxi argitaratu dituzte laboreak eta hazidun fruta-arbolak ekoizteko IKI gidak.

LABOREEN IKI gida ([http://www.magrama.gob.es/es/agricultura/temas/sanidad-vegetal/GUIA\\_de\\_CEREALES\\_WEB\\_tcm7-360868.pdf](http://www.magrama.gob.es/es/agricultura/temas/sanidad-vegetal/GUIA_de_CEREALES_WEB_tcm7-360868.pdf))

HAZIDUN FRUTA-ARBOLEN IKI gida ([http://www.magrama.gob.es/es/agricultura/temas/sanidad-vegetal/GUIA\\_FRUTALES\\_DE\\_PEPITA\\_tcm7-359917.pdf](http://www.magrama.gob.es/es/agricultura/temas/sanidad-vegetal/GUIA_FRUTALES_DE_PEPITA_tcm7-359917.pdf))

MAGRAMAren atarirako sarbidea (<http://www.magrama.gob.es/es/agricultura/temas/sanidad-vegetal/productos-fitosanitarios/guias-gestion-plagas/default.aspx>)

